

# begira




41. zk.  
2017ko abendua

A decorative graphic of five white Christmas trees hanging from thin lines against a solid red background.

## *Gabon Zoriontsuak*

mahai inguruak:  
Negozioetako lehendakariak,  
Eraldaketa Soziala

Talentua erakartzea,  
enpresentzako erronka berria








ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA <  
**Mexikoko Interlomas biaduktua**  
eraikitzeko proiekturako **soluzio integral**  
bat garatu du ULMAK



ALBISTEAK >  
ETA GAURKOTASUNA  
**Arrabolen hornikuntza**  
Frantziako ingeniaritza  
batentzat



MAHAI INGURUA <  
Negozioetako lehenakariak,  
**Eraldaketa Soziala**



> ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK  
**Maite Zabaleta.** Kirolari eta mendiari  
lotutako bizitza



> ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA  
**Fatxada aireztatua** 3D CREAKTIVE testura  
berritzaile batekin **Finlandian**

## 2017ko abendua

- 4 **albisteak eta gaurkotasuna**  
D4, Uruguako Medikamentu  
Banatzaierik handiena,  
errendimendu betean ari da  
ULMAren sistema logistiko  
automatizatuarekin

Würth España erreminten  
lehentasunezko hornitzaile bihurtu  
da ULMA Orga Jasotzaileentzat

ULMA Agricolak 2017ko FRUIT  
ATTRACTION azokan parte hartu du

Egin bat 4.0 Industriaren aroarekin

ULMA Packagingek TIGHT-BAG  
sistema berria garatu du produktu  
izoztuetarako

ULMA Pipingek Parsian C2  
proiektuaren bigarren fasea  
bereganatu du Iranen

- 16 **ULMA Taldeko  
beste talentuak**  
Maite Zabaleta. Kirolari eta  
mendiari lotutako bizitza bat

- 18 **mahai ingurua**  
Negozioetako lehenakariak,  
Eraldaketa Soziala

- 24 **erreportajea**  
Talentua erakartzea, enpresentzako  
erronka berria

- 28 **ULMA Fundazioa**  
2017ko jarduera titularretan

- 30 **agenda eta iradokizunak**



### ARGITARATZAILEA:

Grupo ULMA S. Coop.  
Garagaltza Auzoa 51  
20560 ONATI

Tel.: 943 25 03 00

### ZUZENDARITZA:

Carlos Sarabia  
csarabia@ulma.com

### EDITORE/ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Nora Altube, Joseba Alberdi,  
Elena Goirizelaia, Maria Sendin,  
Irene Moreno, Edurne Unzueta,  
Aitor Albisu, Jesús Mari Eguiluz eta  
Carlos Sarabia.

### DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Igone Basterra  
ibasterra@ulma.com

### INPRIMATEGIA:

Gertu S. L.



Aldizkari hau paper  
birziklatuan inprimatu da  
**#keinujasangarria**



## ULMA HANDLING SYSTEMS

### D4, Uruguako Medikamentu Banatzailerik handiena, errendimendu betean ari da ULMAren sistema logistiko automatizatuarekin

ULMA Handling Systemsek iragarri duenez, Uruguako D4 Logistica & Distribucion operadore logistikoan eskariak prestatzeko gunea duen biltegi automatizatuaren jardura erabatekoa da. Enpresa Celsius, Roemmers eta Urufarma farmazi laborategien aliantza bat da, eta herrialdeko medikamentu banatzailerik handiena da.

Biltegi automatizatu horren historiari bat egiten du D4 beraren sorrerarekin. Lanean hasterakoan, banatzaileak erabaki zuen instalazio automatizatu batean inbertitzea, operazioen kopurua handitzen ari zelako: urtero 60.000 eskariko bolumena; 30 milioi unitate eta 750.000 SKU lerro eskari bakoitzeko.

*"Imajinaezina da eskaera horri efizientziak erantzutea biltegiatzeko eta eskariak prestatzeko sistema automatizatu bat izan gabe. D4ren aurretik, laborategi bakoitzak bere biltegia eta eskarien prestaketa kudeatzeko zituen, modu konbentzionalen eta eskuz, baina, jakina, gaitasun gutxiagorekin"*, kontatzen du D4 Logistica & Distribucionekeko gerente nagusi Diego Manganellik.

ULMA Handling Systemsek garatutako soluzioak enbalatzeko prozesuak jasotzen ditu, Fine Stockersek egindako biltegiatze automatizatu (transjasogailuak kaxa edo



miniloadetarako), eta eskariak bereizteko Pick to Light teknologia duen sistema bat. Biltegiak 300 cm<sup>3</sup> SKU kudeatzeko ahalmena dauka: hau da, plastikozko 12.500 kaxa, eta 12 m-ko altuerako eraikin bat.

*"Sistemak malgutasun goreneko zerbitzuak eskaintzen dizkie D4 Logistica & Distribucionekeko bezeroei, farmazi*



*banaketaren merkatuaren eskaeren gorabeheretara egokitzeko"*, azaldu du Cesar Fracalanzak, ULMA Handling Systemsen zuzendari nagusiak Brasil eta Latinoamerikarako.

## ULMA PIPING

### Block-Branch piezaren garapena

ULMA Pipingek Block Branch elementuak diseinatu eta fabrikatu ditu Petronas Taldearentzat, Malaysian egiten ari den Rapid proiekturako, 20.000 milioiren inbertsioarekin.

Elementuen diseinua egiteko Tecnimontek markatutako jarraibideak hartu dira kontuan, zeina Oil&Gas sektoreko italiar ingeniariarrik garrantzitsua baita. Tutuak konektatzeko elementu estandarrik erabili beharrean, diseinu berezi eta desberdina duten elementuak garatu dira.

Bulego teknikoan diseinua landu

eta gero, ULMA Pipingek proposamena onartu dute. Pieza bereziak izan arren, briden ohiko prozesuari jarraitu zaio: forja, tratamendu termikoa eta planoaren arabera egindako mekanizazioa.

Katalogoko produktu arruntez harago, proiektu honen emaitza izan da ULMA Pipingek egindako elementu berri bat diseinatu eta saldu dela.



## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

### Minera Las Bambasen hornidura kontratua 2 urtez berriro da

Las Bambas meategia kobre ustiategi handi bat da, MMG Meategi Taldearen jabetzakoa. Itsas mailaren gainetik 4.000 m-ra dago, Cotabambas probintzian, Apurimac eskualdean, Perun. 7,2 milioi tonako kobre erreserbak ditu, eta 12,6 milioi tonako baliabide mineralak. Aurrekusten da lehen bost urteetan kobre kontzentratuko 2 milioi tona baino gehiago ekoiztuko direla.

Kontzentrazio lantegia egunero 140.000 tona mineral tratatzeko diseinatu da (hau da, urteko 51,1 milioi tona), eta betetzen duen esparruan leku osagarria dauka, ehotzeko ahalmena handitzeko.

Meategiak kobre kontzentratua ekoizten du, urrezko eta zilarrezko azpiproduktuekin, baita molibdeno kontzentratua ere. 2016ko martxoan, ULMA Conveyor Componentsi urte bateko kontratu bat esleitu zioten gordailuan arrabolak hornitzeko, eta Mantentze Lanetako langileen aholkularitza teknikorako.

Aurreko kontratua amaitu zenean, 2017ko uztailen tender berri bat jarri zen martxan. ULMA Conveyor Componentsen proposamena izan zen 2 urteko kontratu bat egitea, gordailu moduan, arrabolak hornitzeko eta aholkularitza eta prestakuntza plan bat garatzeko.

Minera Las Bambasek ULMA Conveyor Components aukeratu zuen uhal garraiatzailea hornitzeko eta funtzionamendu zuzena lortzeko; uhalak 5,2 km luze da, eta minerala garraiatzen du irekitako mea zulotik prozesatzeko plantaraino.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### CAMPOFRIOk berriro aukeratu du ULMA Drainaketa Burgosko fabrikarako



**DRAINATZE HERDOILGAITZEKO 1.000 METRO LINEAL BAINO GEHIAGO INSTALATU DIRA EUROPAKO HARAGI INDUSTRIARIK HANDI ETA MODERNOENAN**

225 milioi euroren inbertsio bati esker, 99.000m<sup>2</sup>-ko azalarekin eta urteko 100.000 tona baino gehiago ekoizteko ahalmenarekin, CAMPOFRIOren lantegi berria –fabrika zaharra sute batek suntsitu eta 2 urtera ireki zituen atea berriro– Europako haragi lantegirik handi eta modernoena da.

ULMA Architectural Solutionsek **altzairu herdoilgaitzeko drainaketa** sistema bat hornituz parte hartu du proiektuan; sistema bereziki sortu da haragiaren industriarako, beharrezko higiena segurtatzeko Guztira, **1.000 metro lineal** baino gehiago instalatu dira kanal eta kanal artekatu herdoilgaitzetan, Hygienic Pro® saretarekin, eta mota desberdinetako 400 hustubide herdoilgaitz baino gehiago, kutxatiletako tapa estankoez gain. **ULMAren drainatze sistema herdoilgaitza** bereziki diseinatuta dago haragi industriaren prozesuetan pilatzen diren **hondakin organikoak eraginkortasunez ebakutzeko**, eta **azkar garbitzeko** aukera ematen du, **bakterioen aurkako portaera bikaina** bermatuta. Hygienic Pro® saretak garbiketa errazteko diseinu egokia dauka. Campofriok jada jarri zuen konfidantza ULMAren drainatze sistema herdoilgaitzean, orain dela urte batzuk pizzak egiteko Sorian jarri zuen lantegian.





## ULMA ORGA JASOTZAILEAK

### Würth España erreminten lehentasunezko hornitzaile bihurtu da ULMA Orga Jasotzaileentzat

Würth España izango da ULMA Orga Jasotzaileen saldu ondoko zerbitzuaren material, erreminta eta makinerien hornitzailea, bi konpainiek lortutako akordioaren ondoren. Alemaniako enpresak katalogo digital pertsonalizatua jarriko du ULMAko 150 teknikarien eta bere banaketa sarearen eskura, saldu ondoko mantentze lanen zerbitzuan bezeroei arreta emateko beharrezko material, erreminta eta makinekin.

Lankidetzak kontratua sinatuta, ULMA Orga Jasotzaileak etxeak, «erosketen kontzentrazioari esker» baliabideak optimizatzeaz gain, furgoneta eta tailer guztietan material mota bera eta kalitatearen estandar bera erabiltzen dela bermatu nahi du.

Finean, ULMAren iritziz, aliantza errentagarria eta lehiakorra da, eta, ondorioz, herrialde osoko merkatuan mantentze lanen zerbitzurik onena duen konpainietako bat izango da.



## ULMA TALDEA

### Barnetegi Digitala – Elkarrizketarako guneak

ULMA Taldeko Marka eta Komunikazio Arloak, Mondragon Unibertsitatearekin eta SPRIrekin lankidetzan, barnetegi digital bat antolatu zuen joan den azaroaren 7an, ULMAko Negozioetako merketin arduradun eta teknikarientzat. Ikastaro trinko bat izan zen, eta Marketin Digitalari lotutako hainbat gai analizatu ziren. Barnetegia Zeanuriko Etxegana hotelean egin zen, egunerokotasunetik ihes egin eta eguneroko errutinatik ateratzeko ingurune idiliko batean. 16 lagunek parte hartu zuten, gehienak negozioetako merketin, komunikazio eta IT departamentuetako kideak.

Elkarrizketarako guneak eskaini ziren egungo zein etorkizuneko proiektuak partekatuzko, Negozioetan horiek landuko baitira datozen urteetan, negozioak gero eta digitalizatuago eta aldakorragoak

izango baitira. Oro har, parte hartzaile guztiek bat egin zuten horrelako ikastaroen garrantzia azpimarratzerakoan, eta eskertu egin zuten Taldeko Marka

eta Komunikazio Arloaren lana eta MONDRAGON Unibertsitateak emandako ikastaro bikaina.



## ULMA AGRICOLA

### ULMA Agricolak 2017ko FRUIT ATTRACTION azokan parte hartu du

Fruit Attraction Fruta eta Barazkien Nazioarteko Azokaren 6. edizioa urriaren 18tik 20ra bitartean egin da, FEPEXek eta IFEMAK antolatuta. Guztira 45.000 m<sup>2</sup> garbiko erakusketa izan da, eta, 1.500 enpresak parte hartu dutelarik, Fruit Attraction sektorearen nazioarteko ekitaldirik nagusietakoa dela berretsi da. Azokak bere ediziorik osatuena egin du orainoan, baratze eta fruten sektoreko balio kate osoko enpresek parte hartu baitute, 110 herrialdetako 60.000 bisitari profesional baino gehiagori euren aldaerak, kalitateak, abangoardiako produktuak eta industriaren sistemarik berritzaileenak erakutsiz.

ULMA Agricolak nekazaritzaren sektoreko azokan eta topaketen aldeko apustua egiten jarraitzen du, nazioartekotzeko eta munduko merkatuan duen lidergoa indartzeko estrategiaren parte gisa.



## ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

### Egin bat 4.0 Industriaren aroarekin

Gero eta enpresa gehiago baliatzen dira 4.0 industriaren onurez. Egungo teknologiak irtenbide ugari eskaintzen ditu, hala nola produkzio prozesuak monitorizatzea, aktiboak mantentzea, mantentze lan prediktiboa, Big Data analisia, etab.

Aurretiko urratsa abiapuntuko diagnostikoa egitea da, enpresaren jardura bakoitzaren beharrak eta ezaugarriak ezagutzeko eta, horrenbestez, bide orri bat ezarri ahal izateko, enpresa bakoitzaren beharrei erantzuteko. ULMA Embedded Solutionsek, IBM gure kidearekin batera, ekitaldi bat antolatu genuen, inguruko enpresei arazo eta beharrei erantzuna emateko eta erakusteko nola 4.0 industria

## ULMA CONSTRUCTION

### ULMA Constructionek Argentinan duen filialak 20 urte bete ditu

Duela 20 urte **ULMA Andamios y Encofrados Argentina SA** eratu zen, ULMA Constructionen bokazio internazionalaren ondorio naturalaz, izan ere, ordurako ULMA Constructionek bazituen bere lehen filialak Portugalen, Frantzia eta Txilen.

**Aldamia izan zen produktu izarra**, bai matrizearen hasieran bai Argentinako filialaren hasieran, izan ere, produktu horrekin ULMA merkatu batean sartu zen, non produktua ilusioz hartu zuten. Produktuaren jatorrizko izena JJEIP zen, ULMAren fundatzaileen ohorez. Hain izaera ekintzailea zuten pertsona horiek eta hain ondo asmatu zuten, non **ULMA aldamia berme, kalitate eta segurtasunaren sinonimotzat hartu baitzen segituan**, lehenengo Espainian, aurrez fabrikatutako lehen aldamia Espainiako merkatuan indarrez sartzean, eta urte

batzuk geroago Argentinan. Izan ere, garai hartan halako ezaugarriak eskatzen zituen Argentinako merkatuak birgaitze proiektuetan, eta beste konpainia batzuek ez zuten hori eskaintzen.

**Argentinako filialaren sorreran parte hartu zuten pertsonen diotenez –gaur egun proiektu komun hau sendotzen jarraitzen duten pertsona horiek–**, hainbestekoa izan zen ULMAren produktuan eta zerbitzuan jarritako konfiantza eta haiei emandako garrantzia, non **obrak esleitzeko pleguetan ohikoa baitzen zehaztea “aldamioek ULMA aldamioaren ezaugarriak eduki behar zituztela”**.

Enkofratu sistemen eskaintza gerora etorri zen, eta poliki-poliki **ULMA Andamios y Encofrados Argentina SA gaur egun den enpresa fidagarria** izatera heldu da.



eta IoT (Internet of Things) lagungarriak izan daitezkeen negozioak hobetzeko eta aukera berriak sortzeko.

Ekitaldian, IBMk eta ULMA Embedded Solutionsek 4.0 industriaren kasu errealeak aurkeztu zituzten, merkatuan dauden teknologiak, joerak, eta horiei lotuta ULMA

IBMk eskaintzen ari diren zerbitzuak. Bilera indibidualak ere egin ziren, interesa zuten enpresek euren ideiak, zalantzak eta galderak ULMA Embedded Solutionseko eta IBMko adituekin partekatuzko.





## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### Fatxada aireztatu 3D CREAKTIVE testura berritzaile batekin Finlandian

FAZER Finlandiako elikagai konpainia nagusietakoa da, eta ULMA Architectural Solutionseko fatxada aireztatuak soluzioak erabili ditu bere fabrika bateko eraikinak zaharberitzeko.

Finlandiako txokolate ekoizlerik handienaren fabrikaren proiektu arkitektoniko globalaren barruan, zeuden eraikinetako fatxadak zaharberitu dira, 3D testura duen Creaktive Gamaren garapen batekin. K2S ARCHITECTS estudioa arduratu zen proiektua garatzeaz, Mikko Summannen arkitektoaren zuzendaritzapean.

#### PERTSONALIZATZEKO AUKERA MUGAGABEAK

Arkitektoak eraikinak zaharberitzeko ULMAren sistemak aukeratzeko arrazoiaren artean zegoen, besteak beste, polimero hormigoizko fatxada aireztatuak pertsonalizatzeko eta testurizatzeko aukera.

ULMAko departamentu teknikoarekin lankidetzan, **testura guztiz bakar eta eksklusiboa** garatu da proiekturako, markaren produktu izarretako baten forma triangeluarretan inspiratuta. Summannen arkitektoak dioskunez: "3D testuraren ideiarren oinarrian dago barkilloaren eta ekoizlearen txokolatina ospetsuen oroimena, patroia abstraktu bat den arren, forma jakinik erreproduzitu gabe".

Azaldu digunez, "oso egutegi estua geneukan, ia eraikitzen ari zen une berean ari ginen gure ideiak diseinatzen eta garatzen. Horregatik, baloratu genuen ULMAko taldean arkitekto bat egotea, testura bakar hori ahalik

eta azkarren ateratzeko gure eskaerak ulertuko zituen. Gainera, amaierako emaitza oso **zehatza izan da, gure aurreikuspenekin bat etorri da**, eta oso pozik geratu gara diseinuarekin".

Aitzitik, garatzeko denbora urria ez zen erronka bakarra izan. ULMAko arkitektoak adierazi digunez, "guretzat, zailtasunik handiena zen diseinatutako patroiak jarraitasuna izan behar zuela panelen artean, elkarrekin erabat doituta geratu behar zirela".

Erronka guztiak **etengabeko lankidetzari** esker gaituta, arkitektoak eta fabrikatzaileak errealitate bihurtu dute **3D testura** bat, zeinak itxura bakan eta ikusgarria ematen dion proiektuari, eraikuntza sistemaren berezko onurez gain, horien artean egonik energia aurrezteko, agente atmosferikoekiko babesa, iraunkortasuna eta beharrezko mantentze lan urriak, eta eraikinak modernizatu eta errebalorizatzea.



## ULMA PACKAGING

### ULMA Packagingek TIGHT-BAG sistema berria garatu du produktu izoztuetarako

Sistema berritzailea da: poltsa bat egiten da eta, zulorik egin gabe, airea ateratzen zaio.

Sistemaren izena TIGHT-BAGTM da, eta ULMAren makina biltzaile bertikalen gainean egin da, produktuaren kalitatea zaintzeko eta poltsetan eskatzen den bolumena optimizatzeko.

Bolumena optimizatzeari dagokionez, poltsak zulatzen dituzten sistema tradizionalen onura berberak ditu, baina, honetan, zulotxorik ez dagoenez, ez dago produktua kutsatzeko arriskurik.

Atera nahi den aire kantitatea langilearen kontrol pantailatik doitu daiteke.



## ULMA HANDLING SYSTEMS

### ULMA Handling Systems, aditu gonbidatua Basque Industry 4.0 Biltzarrean

"Etokizun adimentsu bat eraikitzen" lelopean, Basque Industry 4.0 biltzarrean IV. edizioak laugarren industri iraultzari buruzko eztabaida landu zuen. Ekitaldia azaroan egin da, Donostian, eta gaiaren inguruko adituen esperientziak, joerak, estrategiak, iritziak, tailerrak eta erakusketak batu eta ikuspegi zabal bat eman zen.

ULMA Handling Systemseko Berrikuntzako zuzendari Mikel Altuna Alkortak, berriz, aztergaiaren gaineko ikuspegi azaldu zuen, Ingeniaritzak 4.0 robotika kolaboratiboaren arloan garatu dituen aurrerapenak azaldu zituen, eskaria prestatzeko sistemetara zuzenduta.



## ULMA ORGA JASOTZAILEAK

### Mitsubishik eta ULMA Orga Jasotzaileak-ek merkaturan daramaten 25. urteurrena ospatu dute, euren ekipamenduen edizio berezi batekin

Zilarrezko ezteiak ospatzeko, Mitsubishi Forklift Trucksek 25. Urteurrenaren edizio berezia atera du merkatura.

25 urte igaro dira Mitsubishi Forklift Trucks Almeren lanean hasi zenetik, Herbehereetan, EMEArako (Europa, Ekialde Ertaina eta Afrika). **Espanian ezarri zenean zituen helburuak guztiz bat zetozen ULMA Orga Jasotzaileen helburuekin: bezeroetatik hurbil egotea, beraien beharrak ezagutu eta ulertzeko eta, horrela, irtenbide pertsonalizatuak eskaini ahal izateko.**

Mitsubishi Forklift Trucksen arrakastaren oinarrian dago konbinazioa ezin hobea lortzen dela bere bikaintasun teknologiko globala eta zerbitzu lokal espezializatua uztartzean, bai maila komertzialean, bai zerbitzu teknikoari

dagokionez. Horregatik, eta eskerrak emateko keinu gisa, Mitsubishik EMEArako bere banatzaile nagusiak gonbidatu zituen Almeren egoitza nagusian egin zen ekitaldi berezira, Herbehereetan.





## ULMA CONSTRUCTION

### Madriko Wanda Metropolitano estadio inauguratu berriari parte hartu du ULMA Constructionek



Estadio zaharra, Peineta izenaz ezagutakoa eta 20.000 ikuslerentzat zena, 68.000 ikuslerentzako estadio bihurtzea erronka tekniko eta logistikoa handia izan da. Erronka gainditu egin da plangintza onari eta material txandakatzeari esker.

1994an inauguratu zen Madriko Erkidegoko estadioa. Orduan obalo formako harmaila bakarra zuen eta

20.000 ikuslerentzako lekua zuen. Orain, birmoldatu ondoren, estadioak 68.000 pertsona hartu ditzake eta elipse forma dauka, 300 eta 255 m-ko ardatzekin. Estalkia, 46.000 m<sup>2</sup> baino gehiago dituena, jokalekutik 50 m-ko altueran jarri da. Estadioa, zeina Madriko Atleticoarena baita, auditorium batekin, VIP palkoekin eta aisialdi guneekin diseinatu da; horrela diseinatu, orain funtzio askoko kirol

estadioa da, eta zaleen gozameneko pentsatutako guneak ditu.

**Horrelako obrek proiektuaren azterketa zorrotza egitea eskatzen dute. Gainera, tamaina handiko bitarteko tekniko eta logistikoak erabili dira, eta bezeroarekin harremanetan egon da etengabe, urrats guztiak planifikatzeko.**

## ULMA PIPING

### Texaseko Unibertsitatearen bisita ULMA Pipingeko instalazioetan

Bisita Texaseko Unibertsitatearen eta MISEren arteko lankidetzaren hitzarmenaren barruan kokatzen da; MISEn MONDRAGONeko ingeniari eta zerbitzu enpresak batzen dira, enpresaren zein hezkuntzaren arlokoak. MONDRAGONi egindako bisita aprobetxatuz, beraien nazioarteko arlotik, zehazki Mexikoko bulegotik, interesa erakutsi zuten gure instalazioak bertatik bertara ezagutzeko. Interes horren arrazoia, batez ere, unibertsitatearen petrolioaren sektorearekin duen harremanetik dator, AEBn erreferentziako sektorea baita, bereziki

Texas estatuan. Azpimarratu daiteke Houston inguruan bakarrik AEBko findegien ahalmenaren %15 kontzentratzen dela; bertan dago ULMA Piping USAko bulego komertziala, estatuko hiri nagusia da, eta AEBko laugarrena biztanle kopuruari dagokionez.

Texaseko Unibertsitatea herrialdeko seigarren unibertsitatea da, eta lehenengo ikerketako inbertsioari dagokionez, hainbat arlotan erreferentziakoa izateaz gain. Bere ezaugarriak dira kokapen geografikoa eta aitzindaria dela petrolioaren sektoreari lotutako langileen prestakuntzan. Bisitan,

instalazioak erakutsi eta ULMA Taldeari buruzko aurkezpena egiteaz gain, bi enpresen arteko lankidetzaren esparruak bilatu ziren.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### Harri aurrefabrikatu berezia duten bankuak Bartzelonako Viladecaneko outlets erdian

**ULMA Architectural Solutionsek banku zirkularrak diseinatu, fabrikatu eta hornitzeko lanetan jardun du Batlle i Roig arkitekturako estudio ospetsuarekin.**

Viladecans Europako The Style Outlets hiru zentro berrietako bat da. Arropa eta oinetako markez gain, jatetxeen gunea eta ingurune naturala dauzka. Pieza kurboak dira, banku zirkularrak osatzeko, eta bankuek isleta moduan jarri dira, barrualdean elementuak konbinatzeko. Ur iturria eta landaredia konbinatu dira, multzoari itxura atsegina eta harmoniatua emateko erabiltzaileari begira.

**Polimero hormigoizko pieza aurrefabrikatuekin** egindako jarlekuak merkataritza gunean kokatu dira, eta bereziki diseinatu dira proiekturako; horrenbestez, banku zuri eroak sortu dira, barrualdean led argiak dituztelarik. **Estetikari eta funtzionaltasunari** dagokionez, irtenbide ezin hobea gauzatu da, helburu nagusia pieza kurboak izatea baitzen, **akabera lau eta**

**iragazgagaitzarekin.** Ezaugarri horiez gain, polimero hormigoiak aukera ematen du pieza arinak egiteko eta,

ondorioz, obran errazago jartzeko, eta, aurrefabrikatuak direnez, instalazioa eta manipulazioa errazten dira.



## ULMA AGRICOLA

### ULMA Agricolaren Multikapera katalogo berria

ULMA Agrícola etengabe eboluzionatzen eta etengabeko hobekuntza lantzen duen enpresa bat da, eta beti hartzen du kontuan bezeroaren gogobetetzetik handiena lortu behar dela. Katalogo honetan informazioa erakusten dugu oso modu bisual eta atseginean, enpresari eta lan prozesuei buruz zein ULMA Agricolak eskaintzen dituen soluzioei buruz.

Katalogoan ULMA Agricolaren Multikapera produktuarekin egindako proiektu eta aplikazioen lagin txikin bat jasotzen da, eta kasu bakoitzaren ekipamenduak eta eskaintako irtenbidea azaltzen dira. Euskarrian ezin zen falta xehetasun teknikoaren atala. Bertan, ULMA Agricolaren Multikapera egiturek eskaini dezaketen aukera estandarren eskaintza zabala erakusten da. ULMAren Multikapera produktua oso produktu moldagarria da, modularra da eta erraz muntatzen da.





## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

### ULMA Conveyor Componentsek bere ahalmen guztia erakutsi du PERUMIN 33 azokan

PERUMIN meatzaritza sektoreari buruzko azoka nagusietakoa da, eta Hego Amerikan antolatzen dute, zehazki Arequipan, Perun. Azokaren zifrak berez mintzo dira: 16 herrialde ordezkaturatu, 1.600 stand baino gehiago, eta 68.000 bisitari inguru, azokak irauten dituen 5 egunetan banatuta.

ULMA Conveyor Componentsen aldetik talde komertzial osoa joan zen, eta hainbat produktu aurkeztu ziren, bereziki azpimarratuta polin monitorizatuen sistema estreintatu berria, zeinak oso harrera ona izan zuen eta bertaratuen artean interes handia sortu zuen.

ULMAren standetik 200 bisita inguru igaro ziren, egungo bezeroen eta kontaktu berrien artean, horietako gehienak Peruko kobreakaren meatzaritzaren sektoreari lotuak, baina



baita Txile bezalako beste herrialde batzuetakoak ere. Gainera, bisitak meatzaritzaren sektore zabal batekoak

izan ziren: Antapaccay, Bambas, Cerro verde, Southern Peru, Antamina, Mina Shougang, Vale Miski, Tisur, etab.

## ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

### KORTA enpresak ULMA Embedded Solutionsen alde egin du bere negozio eredu digitala garatzeko

HALABER, EDIBON ENPRESAK ERE ULMA EMBEDDED SOLUTIONSEN ALDE EGIN DU CLOUD LEARNING TRESNA GARATZEKO

ULMA Embedded Solutions KORTA SA enpresako prozesu eta negozio ingeniariarekin lankidetzan dihardu, torloju boladunen digitalizazioa egiteko soluzio osatu bat garatu eta ezartzeko, izan ere, KORTA espezializatuta dago ardatz boladunen fabrikazioan. Proiektuari esker, Kortak eta amaierako erabiltzaileak torloju boladunen hainbat aldagai monitorizatu ahal izango dituzte denbora errealean, hala nola indarra, bibrazioa eta tenperatura, edozein makinatan eta munduko edozein lekutan lanean ari direnean. Torloju adimena ematearen ondorioz, Kortak bere fabrikazio prozesuak hobetu ahal izango ditu eta negozio kontzeptu berriak garatu, esaterako, bere produktuen kudeaketa aktiborako tresnak, mantentze lan prediktiboko zerbitzuak eta datuen

analisiari lotutako beste jarduerak batzuk.

Halaber, prestakuntzarako tresnak martxan jartzen diharduen EDIBON enpresak ere ULMA EMBEDDED SOLUTIONSen alde egin du cloud learning tresna garatzeko. ULMAK EDIBONen laborategi didaktikoen egokitzapena egingo du, urrunetik sartu ahal izateko. Irtenbide horrek malgutasun handiagoa emango die irakasleei ikasgai praktikoak urrutitik emateko, eta ikasleei ere laborategietarako sarbide programatua eta ez presentziala eskainiko die, euren

praktika orduak optimizatu ahal izateko. Unibertsitateko laborategietarako urrunekosarbidea emateak aukera emango dio ikasleari ikasteko tresnen erabilera optimizatzeko, praktiken emaitzak lainoan gordetzeko, eta gailuetarako sarbide etengabea edukitzeko, kontzeptu teorikoak hobeto ezagutze aldera. Aldi berean, EDIBON bezalako enpresa bati balio erantsia emango dio, bere gailuak IoT-ra egokituta sustatu ahal izango dituelako.



## ULMA PACKAGING

### ULMA Packagingek belarrak eta entsaladak enbasatzeko sistema iraultzaile bat merkaturatu du

ULMA PACKAGINGEK ENBASATZE BERTIKALEKO SISTEMA BERRI BAT MERKATURATU BERRI DU (VFFS)



Sistemak berriak belar freskoak eta hosto arineko entsaladak enbasatzeko modua eraldatzeko asmoa du, ekoizleek denbora eta dirua aurrezteko, eta enbasatzeko prozesuan eskuzko interbentzioa ahalik eta gehien murrizteko.

Sistema patentearen zain dago, eta bere funtzionamendua hau da: produktua xurgatu eta zorroaren amaieraraino arrastatzen du, kaltetu gabe, eta, ondorioz, enbasatze konbentzionaleko makinerian produktua blokeatzen delako sarritan gertatzen diren arazoak desagerrarazten dira. Ondorioz, produktu batzuk automatikoki pisatu eta bertikalki enbasatzea ahalbidetzen da, izan ere, prozesu horiek orain arte eskuz egiten ziren, biltzeko gailu horizontalekin.

ULMAK VTI 640 V biltzeko makina bertikalean inplementatu du sistema berritzailea, eta inbertsioa oso azkar itzultzea ahalbidetzen du, eskulana zein zorroak gaizki zigilatzeagatik egin behar izaten diren birprozesuak murrizten direlako. VTI 640 V makinak eskaintzen duen funtzionalitate berria ultrasoinuen bidezko zigilatzea baino alternatiba merkeagoa da, produktua beti zigilatzeke orduan harrapatzeke arriskurik gabeko guñe batean kokatzen delako.

## ULMA PIPING

### ULMA Pipingek Parsian C2 proiektuaren bigarren fasea bereganatu du Iranen

Lehen fasean eskatutako betekizunak arrakastaz bete ondoren, ULMA Pipingi esleitu diote proiektu ambiziotsu horren fase berria, eta, horri esker, ULMA marka sendotu egiten da Irango merkatuan, zeina oso aktibo dagoen hainbat urtez nazioarteko enbargoaren ondorioz oso maila apalean jardun eta gero.

Proiektuak gure katalogoko produktuen aukera zabala hartzen du, eta birgasifikazio planta bat zabaltzeko beharrezko lanen barruan sartzen da.

Kontratatzailerak HANPA Engineering Corporationek eta HEDCOk osatutako partzuergo bat da; bi konpainiak

Irango merkatuaren erreferentziako kontratistetakoa dira. Plantaren jabea bertako enpresa da, hau da, Palayesh Parsian Sepher Company.

Materiala Irango bi probintziatarara hornituko da. Fars probintziara, zehazki, Mohr hirira, non materiala berreskuratzeko fasea garatzen ari diren; eta Booshehr probintziara, Assalouyeh hirira, non gasen zatikapena egingo den.

Proiektuaren helburua da urtero hainbat produkturen 20 milioi unitate ekoiztea, tartean egonik metanoa, etanoa, propanoa, etab.





## ULMA HANDLING SYSTEMS

### Haragi industriaren Tello taldeak berriro jo du ULMAra

Toledoko Carnico Tello taldeak bere logistika automatizatzeko helburuan murgilduta jarraitzen du, ULMA Handling Systemsen eskutik.

Orain dela urte batzuk, Tellok jada aukeratu zuen ULMAren irtenbide automatizatu bat, eta, orain, dagoeneko 7.000m<sup>2</sup>-ko plataforma automatizatu bat dauka, 0° eta 5°C arteko tenperatura positibo kontrolatuarekin, firmak

Espanian zein nazioartean banaketa egiteko dituen beharrak modu eraginkor batean egiteko. Gaur egun duen egoeraren ondorioz, haragi taldeak Toledon dituen instalazio nagusiak zabaldu behar ditu, produktu freskoaren eskaintza handitzeko. Horregatik da beharrezkoa biltegi berri bat eraikitzea.

Haragi etxearen instalazio autoigokari berriak 2.000 m<sup>2</sup> izango ditu, eta 5.000

palet hartu ahal izango ditu, -24°C-ko tenperatura kontrolatua. Gainera, eskariak prestatzeko sistema bat ere izango du, Carnicas Tello industriak kontsumitzailearen behar aldakorrei erantzuteko.



## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

### Arrabolen hornikuntza Frantziako ingeniari-tza batentzat

Frantziako erreferentziako ingeniari-tza batek ULMA Conveyor Componentsi esleitu dio arrabolak hornitzeko kontratua, nazioarteko bi proiekturako: horietako bat Ginearako da, eta bestea Tadjikistango Rogun Dameko zentral hidroelektrikorako.

Ingeniari-tza handi horrek, gainera, Afrika eta Hego Amerikako merkatu estrategikoetan lan egiten du, eta, arrazoi hori tarteko, bi proiektuak lortu izana aurrerapausoa da ULMA Conveyorentzat, konpainia hedatzeko eta dibertsifikatzeko planean.



## ULMA PACKAGING

### Ebakin murriztuaren sistema ULMAren eta CRYOVACen eskutik

Sealed Airek patentatu eta TFS 407 R modeloaren gainean ezarri den soluzioak hutsa egitea ahalbidetzen du, beheko mekanismo baten bitartez. Sistemak ebakin gutxiago sortzen du, eta makinaren zikloa azkarragoa da.

#### Onura nagusiak:

- | > > Zikloaren abiadura %12 bizkortzen da skin makina estandarrei eta Darfresh makinei dagokienez.
- | Filmaren zabalera %4raino ere murrizten da.
- | %40 ebakin gutxiago sortzen da.
- | Hutsaren kalitatea ezin hobea da, goiko eta beheko Darfresh® film bobinen sistema konbinatuari esker.
- | Irekitzeko kalitate handiko "Easy Open" sistema eskusiboa dauka.



## ULMA CONSTRUCTION

### Mexikoko Interlomas biaduktua eraikitzeko proiekturako soluzio integral bat garatu du ULMAk



**Herialdeko hiriburura jotzen duten bideak modernizatzeko planaren barruan, 227m-ko biaduktu honek Interlomas aldea eta Naucalpan-Toluca autopista lotzen ditu.**

Gauzatzeko epea zen proiektu honen baldintza garrantzitsuenetako bat. Horretarako, **ULMAk soluzio bat diseinatu du bezeroaren premia eta lan erritmoetara erabat egokituta:** zinzria arkupeduna alboetan dauden 59 m-ko baotan eta CVS aitzinamendu orga erdiko 108 m-ko zatian.

ULMAko ingeniari-tza taldeak zinzrien sistema arinak eta sendoak konbinatu ditu taula 15 metro baino gehiagoko altueretan zurkaizteko, lurzoruaren orografia malkartsuaren arabera. MK zertzak, pilarean eta MK zinzrietan bermatuta baitago, 20 metro baino gehiagoko bao bat gainditu du.

Bi pilareek 42 m-ko altuera dute eta 5 m-ko tarteetan egin dira ENKOFORM V-100 enkofratze sistemarekin eta CR-250 gora egiteko kontsolarekin. Aurreko fasean eraikitako hasierako dobelaren

gainean kokatu da aitzinamendu orga, handik itxierako dobelarantz aurrera egiteko, beste pilaretik abiatzen den orgarekin elkartzeko.

**MK Sistemak berriro erakutsi du aplikazio ugari dituela, aitzinamendu orga gisa, zinzria gisa eta karga handiko zertzak gisa, bai eta enkofratu gisa ere. Sistema bakarra proiektu oso baterako.**



## ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK

Taldeko langile eta bazkideek bateratu egiten dituzte beren ibilbide profesionala eta zaletasun zorrotz-zorrotzak; hola erakusten dute talentuarekin eta esfortzuarekin horma guztiak botatzen direla.

# Kirolari eta mendiari lotutako bizitza bat

Maite Zabaleta, ULMA Handling Systems

**Maite Zabaleta ULMA Handlingeko administraria da, eta bere erantzukizun profesionalak trail runningaren praktikarekin konbinatzen ditu. Berarentzat, egunero egiten duen entrenamendua deskonektatzeko modu bat da.**

Maite Zabaletaren bizitza osoa mendiari lotuta dago: familia, lana eta bere pasio handia, trail runninga, oinarrian mendiko xendretan lasterka ibiltzea duen kirol diziplina gogorra.

Maite orain dela 35 urte jaio zen Oñatin, Aretxabaletan bizi da, eta ULMA Handling Systemseko administrari lanetan dihardu, Oñatin. Kirol horri hainbeste eskaintzen dio, ezen bazkalordua aprobetxatzen baitu mendian barrena 10 kilometro egiteko, kooperatibaren inguruan. Eta egunero egiten du, "atseden aktiboko" egunean izan ezik. "Ohituta nago irten, kirola egin, bazkaldu eta, ondoren, berriro lanera joatera". Zergatik? "Niretzat, betebeharra baino gehiago atsedena da. Deskonexioa da, buruan dudan guztia kentzea ahalbidetzen didana", azaldu du.

Kirolaren alde duen pasioa ez zen oso goiztiarra izan, 20 urte baino gehiago zituenean sortu zitzaion. Maitek gogoan du haurtzaroan eta nerabezaroan atletismoan eta saskibaloian aritzen zela. Baina jarduera horiek egiazki gustatzen zitzaion ariketa alde batera uztera behartzen zuten: aitarekin mendian oinez ibiltzea. "Igande goizean partida baneukan arratsaldean joaten nintzen ibiltzera, eta horrela izaten zen beti, bateratu egin behar nituen. Egun batean nire baitan esan nuen arte: ez, gustukoagoa dut bakarrik eta aire zabalean ibiltzea". Eta mendiko lasterketetan praktikatzen hasi zen.

Bera bakarrik hasi zen, bere kabuz

entrenatzen, eta senak adierazten zion beste jarraibiderik gabe. Orain dela urte pare bat arte, izan ere, bakarrik ibiltzeaz nekatuta, Gasteizko talde batean hasi zen, Zortzietakoak taldean, eta entrenatzaile pertsonal bat hartzea erabaki zuen. "Askotan uste dugu, lasterka ibiltzearen ibiliaz hobetuko dugula, baina hori bakarrik egitea ez da ona: Atsedean hartu behar dugu, bizikleta, esprintak", azaldu du, taldean sartu zenetik trail runninga dagoeneko hobby hutsa baino gehiago dela aitortu eta gero. "Pentsatzekoa da zerbait egiten duzunean ongi egin nahi duzula, ezta?", esan du. Orain taldeekin lasterketetara joaten da, jendea ezagutzen du, eta dena atseginagoa da.

Baita lehiaketa ere. Maitek urtean gutxi gorabehera 10 karreratan parte hartzen du, eta denak dira 30 kilometro baino



*Niretzat, betebeharra baino gehiago atsedena da. Deskonexioa da, buruan dudan guztia kentzea ahalbidetzen didana.*

gutxiagokoak. Eta palmaresa ere badauka, aipatu ere egiten ez duen arren. Gezurra dirudi, baina kosta egiten zaio bizitzan zehar zenbat podio egin dituen gogoratzea. Bi besterik ez ditu gogoan: Gasteizen bat, 25 kilometrokoa, eta beste bat Huescako Pirinioetan, Villanuan, "bertikal bikoitzean".

Izen horrekin, ez dirudi ahazten zaila den lasterketa. "Bertikal" batean 5 kilometro baino gutxiagoko ibilbide batean 1.000 metroko desnibela gainditu behar bada, Villanuako bertikal bikoitzean 2.000 metro positiboko desnibela gainditu behar da 7,5 kilometroan, Collarada gailurreraino. Bada zerbait! Lasterketa haren gainean egiten duen laburpenak bere izaeraren apaltasuna erakusten du: "Sufritu egin nuen, disfrutatu egin nuen, eguraldi ona egin zuen eta bigarren geratu nintzen".

Proba hartara senarrarekin batera joan zen, trail runningaren kontu honetan duen kidearekin, zeinarekin borrokatxo bat ere baduen ("beti irabazten dit; ez dakit nola egiten duen, baina nik gehiago entrenatzen dut eta ezin dio irabazi", dio barrez). Hark ez bezala, Maite goerarako bakarrik lehiatu zen. Lehen aldiz egin zuen, itxaropen handirik gabe, eta parte hartzeko nahi hutsarekin. Baina bigarren geratu zen proba benetan gogor hartan eta, batez ere, disfrutatu egin zuen.

Oñatiar kirolaria mugitzen duena ez delako lehia bakarrik. Kirola da, aire libreko eta mendiko jarduerak, batez ere mendikoak. Maitek aitortzen du igerilekura



joaten dela karrerako atsedean egunetan, "mugitzen" jarraitzeko. Baina ez du gustuko. Berari mendiak deitzen dio. Eta negua noiz iritsiko zain dago dagoeneko, beste zaletasun batean aritzeko, eskiatzera joateko.

Lasterka irteten den egun bakoitzean ibilbideko ñabardura guztiak ateratzeko gai da: "Paisaiaren xarma, beste pertsona baten konpainiaz disfrutatzea, gauza berriak deskubritzea, kolore berriak...". Horregatik, inoiz ez da Aizkorri eta Urbiako inguruez nekatzen, eta behin eta berri joaten da bertara lasterka. Egun bakoitza desberdina delako eta zerbait desberdina aurkitzen duelako.

Eta jarduera fisikoarekin ere ez da aspertzen. Lotsatu egiten da ironwoman esaten badiote, baina daukan bizitasunak ez dio atsedean hartzen uzten, "ezta lo egiteko ere". Izan ere, barrez esaten duen bezala, "mendia kentzen badidate, hil egiten naute".



# Negoioetako lehendakariak Eraldaketa Soziala

ULMA Taldeko lehendakarien iritzia ezagutu nahi izan dugu, azken hilabeteetan ireki den eztabaida prozesuaz zer pentsatzen duten azaltzeko.

>> **RG: RAUL GARCIA**  
ULMA Taldea eta ULMA Construction

>> **LDG: LANDER DIAZ DE GEREÑU**  
ULMA Packaging

>> **UA: UNAI ARREGI**  
ULMA Architectural Solutions

>> **AY: ANDER YARZA**  
ULMA Agrícola

>> **IM: IÑAKI MEDINA**  
ULMA Piping

>> **MP: MIGUEL PASTOR**  
ULMA Conveyor Components

>> **JAA: JON ANDER ARAMENDI**  
ULMA Orga Jasotzaileak

>> **IQ: IÑIGO QUEREJETA**  
ULMA Handling Systems

« **Batzuek besteek baino denbora gehiago daramazue kooperatibetako negozioen lehendakaritzan, eta, berez, zuen esperientzia ezagutu nahi dugu.**

**R.G.:** Niretzat, oso esperientzia ona izaten ari da. Sei urte baino gehiago daramat karguan, eta jende askorengandik gauza asko ikasteko aukera izan dut. Hainbat lehendakaritzatan nabil aldi berean, eta oso aberasgarria da, nahiz eta etsipen puntu hori duzun, eremu instituzionalean zaudelako eta erabakiak hartzeko ahalmena mugatua delako. Aldatu nahi zenituzkeen gauza asko ikusten dituzu, baina kudeaketa beste pertsona batzuen esku dago, eta, horregatik, aukera mugatua da.


**L.D.G.:** Nik bi urte eta erdi daramatzat karguan eta nire esperientzia, baita ere, aberasgarria da. Edonola ere, osagarria da, izan ere, dagoeneko 19 urte daramatzat ULMA, ULMA Packagingen zehazki. Teknologia eta proiektuetara oso zuzenduta dagoen arlo tekniko batetik nator, bezeroekiko harreman apur batekin. Lehendakari karguak bai eman didala kooperatiba denari buruzko ikuspegi globalagoa, eta asko hurbildu nau ULMA Taldera, gai hori oso urrun bezala baineukan. Uste dut Taldean beste batzuek egiten dutena, ULMAko beste

kooperatiba edo negozio batzuek izan ditzaketen arazoak, urrun samar geratzen zaizkigula egunerokoan, eta komeniko litzateke hori aldatzea.

«  
**lehendakari karguak bai eman dit kooperatiba denari buruzko ikuspegi globalagoa, eta asko hurbildu nau ULMA Taldera**  
>> **L.D.G.**

**U.A.:** Nire esperientzia laburra, urtebete bat baino ez, baina, bestela ezin izan eta, oso aberasgarria da, egunerokotasuna grina handiagoz biziz aurreko rol profesionalarekin alderatuta, grinaz baina baita ere tentsioz beteta, negozioaren dinamikak berak eta sortzen diren arazoez uneoro tentsioan egonazten zaituztelako. Master bat da goitik behera. Finean, ikasteko gogo handiz, ahalik eta inpartzialena izaten saiatuz eta denon lehendakaria izaten saiatuz.

**A.Y.:** Niri dagokidanez, bi urte eta erdi daramatzat, eta bat nator esan denarekin. Kooperatibari eta Negozioari buruzko gauza asko ezagutzen dituzu. Esperientzia polita da, baina baita etsigarria ere, Negozioaren egoeraren arabera. Niri hasieran egoera zaila egokitu zitzaidan,



baina orain egoera hobea dago, eta horrela amaitzea espero dut. Zer egoera egokitzen zaizun, hori da kontua.

**I.M.:** Dagoeneko nire azken urtea da, hiru urte eta erdi egin ditut, eta karguan hartu dudana esperientzia, kideek esan duten bezala, aberasgarria da, kooperatiba ezagutzen duzu, jendea ezagutzen duzu, zeure burua ezagutzen duzu. ULMA Piping oso urte onak igaro ditugu eta beste batzuk ez hain onak, eta egia da denetik ikasten dela. Kontua da ikustea lehendakariak kooperatibaren alde zer egin dezakeen, eta hori etsigarria izan daiteke, sortutako aurreikuspenen arabera, bai kolektiboari dagokionez bai norberari dagokionez; ilusio handiz iristen zara eta, lehen bi urteetan, ez bazaude liberatuta, gauzek nola funtzionatzen ikasten igarotzen duzu, hirugarren urtean kokatuago zaude, eta ikusten duzu ez dela erraza buruan zenituen kontu horiek gauzatzea, eta azken urtean, ez badago

«  
**kontua ez da lehendakariak zer eramaten duen esperientzia honetatik, baizik eta lehendakariak zer uzten duen kooperatiban**  
>> **I.M.**

elementu motibatzailek, gerta daiteke ilusioa galtzea. Maila pertsonalean, esperientzia oso positiboa da. Ez ditut lau urte hauek ezerekin aldatzen, ona eta txarra neurekin eramaten ditut, nire ikasketaren parte gisa. Baina kontua ez da ikustea lehendakariak zer eramaten duen esperientzia horretatik, baizik eta zer uzten duen lehendakariak kooperatiban, eta hori uste dut ez dugula ongi antolatuta lehendakaria aldatzen denean; lehendakari bakoitza zerotik sartzen da.

**M.P.:** Iñakiren ildo berean. Maila pertsonalean, oso esperientzia interesgarria da kooperatibaren ikuspegi globalagoa izateko aukera edukitzea. Nik lehenago ikuspegi exekutiboagoa izango nuen, eta orain aukera izan dut alderdi instituzionalago bat ikusteko, izaera sozialagoarekin, hortik urrun samar bainengoen. Horrez gain, eta gure kasu zehatzean, distantziagatik, niri karguak ULMA Taldea barrutik ezagutarazi dit, eta orduan egiazki ohartzen zara zer Talde maila daukagun. Maila pertsonalean oso aukera ona da maila sozialean ezagutza eskuratzeko, baina bere alderdi gogorra ere badu, bakar samar ikusten duzu zure burua, gauza asko lehendakariaren gain geratzen direlako. Ados nago esaten denean lehen bi urteetan ez duzula

karguan zuzen aritzeko ezagutzarik, eta hirugarrenetik aurrera hasten zarela esperientzia izaten, eta orduan profesionalago jokatzen duzu. Oro har, oso esperientzia ona eta aukera handia, baina egunerokoan eraman egin behar da.

**J.A.A.:** Nik bi urte eta erdi daramatzat eta, oro har, esperientzia atsegina izaten ari da, bere alderdi positiboekin eta negatiboekin, eta horiek zerrendatzen saiatuko naiz. Alderdi positiboan, Negozioa eta ULMA Taldea hobeto ezagutu ahal izan dut eta ikuspegi globala lortu, jende berria eta esperientzia berriak ezagutzeaz gain. Niri iritziz, Batzarrak ematen digun pribilegioa da, aukera bat; master azeleratu bat da, eta, pertsonalki, helduago izateko aukera ematen dizu. Alderdi negatiboetan, nabarmenduko nuke batzuetan sentitu daitekeen bertigo sentsazioa, hartutako erantzukizunagatik, eta baita ere eginkizun profesionalak –ni teknikari informatikoa naiz– lehendakaritzarekin bateratzeko zailtasunak.

**I.Q.:** Lehendakariaren figura Kooperatiba osatzen duten pertsonen zerbitzura dagoen lider eraldatzaile moduan ulertzen dut. Pertsonengandik onena ateratzen saiatzen den norbait, eta ez norberaren ideiak/ametsak sartzen saiatzen dena. Horretarako, zeregin horiek egiten dituen pertsonak erabaki bat hartu behar du, eta





&gt;&gt; M.P.: MIGUEL PASTOR

horrek esan nahi du ikuspegi egozentriko batetik ikuspegi kolektibo baterako trantsizioa egin beharko duela.

Beraz, nire kasuan, pertsonaren erabateko eraldaketa esperientzia moduan definituko nuke: nigan oihartzuna duten balioak onartzea, pertsonok nondik funtzionatzen dugun ezagutzea, akordioak lortzen ikastea, sinesten ez ditugun sistemak baztertuko dituzte irtenbideak etengabe bilatzea, denborarik gehiena "zerbaiten alde" egitera zuzentzea eta ez guztiaren kontra egitera, sinismen mugatzaileak gainditzea...

Laburbilduta: Baztertu daitezela euren konfort gunean eroso bizi diren pertsonak (nahiz eta ez duten hori jendaurrean aitortzen), edo euren eredu mentalak erroetik zalantzan jartzeko prest ez daudenak.

**« Une hauetan hausnarketa egiten ari zarete Eraldaketa Sozialari buruz. Zer espero duzue eztabaida horietatik eta zergatik uste duzue garrantzitsua dela gaia lantzea? »**

**I.Q.:** Eraldaketa Soziala mugimendu kooperatiboaren ADNan dago, nahiz eta ariketa hori soberakinak IPDKren bidez banatzera murriztu dugun (hau da, limosnaren kudeaketa), edo pozik egotera lanpostuak sortu ditugulako, hazkundeari esker. Alderdi horiek, ezinbestekoak izanik ere, uste dut XXI. ez direla nahikoa gizartearen eboluzioa bermatzeko.

Oro har, harro egon ohi gara gure Negozioetan egiten dugunarekin, baina joera daukagu ez komunikatzeko zergaren (gure webguneetan, eraikinetan, ikusten dugu), eta horrek eragin iraunkorragoa

dauka pertsonengan (eta, ondorioz, euren ingurune afektiboetan), baina baita ere bezero eta hornitzaileengan, eta gizartearengan oro har. Hori oinarritzko maila litzateke, merkaturak dagoenarekin alderatuta.

Horrez gain, UHSn 2016an egiten genuen galdera zen oinarritzko maila hori nahikoa den ala ez, eta, ez bada, zein den zehazki gure espektatiba. Gogoetaren ondorio moduan, kontzeptua UHSren arrakastarako faktoreen artean sartu zen.

ULMA taldearen hausnarketa hauetan ikusten dugu negozio bakoitzaren abiapuntua eta espektatibak oso-oso desberdinak direla. Halere, kontzeptu humanistikoak lantzeak berak, ez baikaude horiei buruz hitz egiten ohituta, aukera ematen digu horizontean marko orokor bat definitzeko... baina kontzeptuaren modelizazioa desberdina izan daiteke negozio bakoitzean, eta segur aski desberdina izango da. UHSn dagoeneko ari gara modelizazioa lantzen gure urteko GP Sozialean.

**J.A.A.:** MONDRAGONeko kooperatiba esperientziaren printzipioen artean Eraldaketa Soziala eta ekonomia sozial libre eta justuago bat sortzea aipatzen da. Nire iritziz, kooperatibak eta gutako bakoitza ez gaude bizi garen gizartetik kanpo, eta, ondorioz, eraldaketa sozialaz hitz egiteak, askotan, nolabaiteko lotsa, errespetua eta gatazka eragiten dizkit barruan. Hausnarketa prozesu honetan ikusminez nabil, dinamizatzen gaituen eragileak nik baino askoz ezagutza eta esperientzia handiagoak baititu. Modu eraikitzailean egin nahi dut ekarpena, eta, behar denean, kritikoa izan.

**M.P.:** Nik uste dut alderdi sozialak negozioaren beste alderdiek bezala



&gt;&gt; A.Y.: ANDER YARZA

eboluzionatu behar duela. Beste gai batzuetan aldizka aztertzen ditugu produktuak eta merkatuak, baina, guri dagokigunez, kooperatiba izanik, aldi berean eboluzionatu beharko genuke alderdi sozialean, ez daitezen atzean geratu. Negozioaren tamainagatik, guk ez dugu esateko askorik izango, gure hondar alea eta ikuspegia emango ditugu, baina uste dut alderdi sozialak ULMA Taldetik Negozioetara eboluzionatu behar duela.

**« alderdi sozialak Negozioaren beste alderdiek bezala eboluzionatu behar du »**

&gt;&gt; M.P.

**A.Y.:** Ni ere nolabaiteko ikusminez nago. Negozio txikia gara, eta ez dakit zein izango diren puntu zehatzak. Pertsonalki, barrura begirako eraldaketa sozialean sinesten dut, bazkideei begira, zer ekarpen egin dezakegun ikusi nahi dut; berriak gara eta Negozio txikitxoak. Martxa desberdinak daude, esperientzia desberdinak, eta gurea ia ezdeusa da, eta ikusminez gaude.

**« barrura begirako eraldaketa sozialean sinesten dut, bazkideei begira, zer ekarpen egin dezakegun ikusi nahi dut »**

&gt;&gt; A.Y.

**U.A.:** Ildo berean, negozio txiki batetik nator, eta gai honetan ez dugu gauza



&gt;&gt; L.D.G.: LANDER DIAZ DE GEREÑU

handirik egin, nahiz eta egunerokoan gauzak egiten ditugun, gauza sakonak. Talde mailan, abiapuntuan eta irismena definitzeko fasean gaude. Gaur-gaurkoz espektatibak ez dira oso zehatzak, baina aurrerapausoak eman behar dira, eta ikusi zer proiektu eskaini ditzakegun. Hemen garrantzitsua da KOLEKTIBOA inplikatzeko. ULMA bezalako talde kooperatibo batean ezinezkoa da eraldaketa sozialaren erantzukizuna baztertzea, MONDRAGONeko printzipioetan jasota dagoen heinean; gizarte hobetzeko erantzukizuna daukagu, eta horretan ekarpenak egiteko ilusioarekin jardun behar dugu, eraiki, kiritikoak izan eta gaiak mahai gainean jarri, eta hortik aurrera saiatu behar dugu kolektiboak bat egitea planteatzen ari garenekin.

**L.D.G.:** Pixka bat filosofikoago jarrita, gaur egun ezagutzen dugun kooperatibismoa ARRASATEn ernamuindu zen, gerraondoan, Arizmendiariarekin. Premiaren gizarte batetik dator. Ez zegoen lanik, ez zegoen aberastasunik, familietan behar handiak zeuden, eta egora iraultzeko tresnak landu nahi izan ziren. Tresnaren oinarrian heziketa Eskola, eta ondoren ARRASATEko kooperatiba esperientzia, eta ondoren etorri zen ULMA Taldea, Ignazio Maiztegi tailerrekin, etab. Orain ongizatearen gizartearen gaude, eta kooperatibismoa gizartearen isla baino ez da; horregatik, uste dut premiaren kooperatibismotik ongizatearen kooperatibismora igaro garela. Kooperatibismoa beharrezko eraldaketa soziala sortzeko tresna bazen, gaur egun galdu egin dugu ipar hori, eta maila bat azpitik geratu gara: orain, kooperatibismoaren helburua negozio indartsu batzuk edukitzea da. Egia da

gaur egun beharrak oso bestelakoak direla, hemen jada ez dago hainbesteko premiarik, baina beste leku batzuetan bai. Gogoeta horrekin nahi dena da hasierako helburua berreskuratzea, eta kontziente izanik kooperatibismoan, ez badago negozio errentagarrikerik bat irabazirik ez badago, ez dagoela proiektu sozio-enpresarialik, urrats bat harago joan behar dugu, arlo Sozialarekin osatuta. Eraldaketa soziala ez dute kooperatibek egingo, langileek egingo dute, bazkideek, gizarteak... ULMA Taldeak tresnak jarri behar ditu hori posible izan dadin. Eta egin behar duguna da eraldaketa sozialaren kontzeptu hori bazkideengan eta langileengan txertatu, beraiek izan daitezen pausoak ematen dituztenak; guk tresnak jarri ditzakegu, lagunduko duten elementuak jarri, baina pertsonak egin ezean ez da posible izango. Hemen lehendakariak elkartu eta eraldaketa soziala egin nahi dugula esanda ere, helburua kontzientziatzea hori da, ULMA Taldeko langileak izan daitezela egiazki emango dutenak eta eraldaketa soziala posible egingo dutenak.

**R.G.:** Kooperatibak ez daude kapitalaren zerbitzura, ez gaude besterik gabe emaitzak lortzeko. Jakina, ahalik eta emaitzarik onenak bilatzen ditugu, baina gizarte hobetzeko tresna bat gara, eta HORREGATIK gizartearen integratua egon behar dute. Ildo horretan, hausnarketa honekin nahi dugun gauzetako bat da zer den eraldaketa sozial delako hori ULMAko kolektiboaren mailan. Uste dut kontzeptua ez dagoela argi, eta, ulertzen badugu kooperatiba gizarte hobetzeko tresna bat dela, pentsatu beharko dugu nola egiten dugun ULMAren eta gizartearen arteko uztarketa hori. Harremanak daukagu, hainbat irizpideren arabera banatzen



&gt;&gt; R.G.: RAUL GARCIA

ditugun fondo sozialak ditugu, baina, enpresa soziala izan nahi badugu, lotura gehiago izan behar ditugu gizartearekin. Gizartea hobetzeko EGIATZKO tresna bat nola izan definitu behar da.

**« ulertzen badugu kooperatiba gizarte hobetzeko tresna bat dela, pentsatu beharko dugu nola egiten dugun ULMAren eta gizartearen arteko uztarketa hori »**

&gt;&gt; R.G.

**I.M.:** Ikusminez Eraldaketa Sozialaren kontzeptuari dagokionez. Gutxi-asko konpartitu dezakegun teoria bat badago, baina horretan kolektibo osoa sartzen gara, edo ez dugu ezer egingo. Eta horretarako talde traktore bat egon behar da, ezeren aurretik horretan sinetsiko duena, eta komunikatu, konbentzitu, jendearekin denbora eman, gure jendearekin. Alferrik da 5 teoriko elkartzeko Eraldaketa Sozialari buruz eztabaidatzeko, ez bagara gai kooperatibak osatzen ditugun guztionagan iristeko. Miguelek dioen bezala, enpresetan merkatu azterketak egiten ditugu, Gestio Planak, eta horiek betetzeko hainbat tresna jartzen ditugu. Gai sozialean, gure kooperatiban behintzat, ez daukagu ezer antolatuta langileen artean eztabaidatzeko Eraldaketa Sozialaren arloan kooperatibak zer eman behar lukeen. Nire iritziz, uste dut Taldetik edo organoetatik etorri behar dela, eta errealitatea da ez daukagula inolako gunerik gaiari buruz hitz egiteko, eta ez diogula inolako lehentasunik ematen.





&gt;&gt; U.A.: UNAI ARREGI

### « Gaia aldatuz, nola ikusten duzue giro soziala zuen kooperatiba/negozioetan?

**R.G.:** Oro har, eta ez bakarrik ULMAN, baizik eta beste kooperatibetan ere, nolabaiteko etsipena ikusten da –"laino grisa" esaten diot nik-. Uste dut gutxi baloratzen dugula zenbat balio dugun, piramidearen punta baino ez dugu baloratzen, baina ez azpian dagoena. Askok kexatzen gara arduratzen gaituzten gauzengatik, baina daukagun funtsezko beste gauza batzuk ez ditugu baloratzen. Hobetzeko bidean gaude, eta kooperatiba batzuk ondo doaz, baina ez dugu lortzen daukagun etsipen hori gainditzea, buru gainean dugun "laino grisa". Auzoen arabera da, ez da berdina Negozio edo departamentu guztietan, baina kooperatiba askotan errepikatzen da. Alderdi horretan hobetzeko gai izatea gauza askoren mende dago: daukagun liderren profila, gaiak zenbateraino lantzen diren, nola sustatzen dugun jendeak parte hartzea, hori niretzat funtsezkoa baita. Aldagai asko daude, baina oraindik ez dugu ikasi galtzerdiari buelta ematen. Hori esanda, eta aitortuta landu beharreko gauza asko ditugula, baita ere uste dut ez dela esan giro soziala oro har txarra dela.

**L.D.G.:** Nik neure kooperatibaren esperientziaz hitz egin dezaket, eta, lehendakariak izanik, nolabait profeta lanak egitea egokitzen zaigu, baina ahaztu gabe kolektiboaren parte izan garela. Batzuk beste organo borrokazaleago batzuetatik igarotakoak gara. Aitzitik, lehen ongizatearen gizarteari buruz esan dudanaren harira, eta Rauli arrazoia emanez, egia da kolektiboak beharbada ez duela baloratzen dugun egoera, eta ez naiz egoera ekonomikoaz ari. Egoera

hau orain dela 30 edo 40 urte inork ez zuen imajinatuko, lortu diren gauzak... Baina bai uste dut kooperatibetako giroa, edo behintzat nirearena, aldarra dela, ziklikoa, izan ere, puntualki zarata handia ateratzen duten gaiak sor daitezke, kolektiboa pozik ez dagoelako mezua dagoenean, kolektiboak erantzun egiten du, inplikatu egiten da eta konprometitua agertzen da, eta hori, nire ustez, bateraezina da giro sozial txar batekin. Alegia, pertsona bat gustura ez badago, uste badu bere kooperatiban ez dutela kontuan hartzen, eta esfortzua eskatzen bazaio ez luke erantzungo, eta, daukagun esperientziaren arabera, beharra egon denean jendeak erantzun egin du, sakrifikatu hitza potoloegia da beharbada, baina bai beste gauza batzuk alde batera utzi dituela, bere hondar alea jartzeko. Nik dudak ditokiomia da kolektibo borrokazale bat daukagula, baina aldi berean egoeraz jabetzen dela eta esfortzuak egiten dituela. Oro har, ziklikoa da, agertzen diren gai puntualen arabera erreibindikazio edo zarata gehiago ager daiteke, baina jendeak badaki zer dagoen.

«  
kontseilu orokorrean  
alderdi soziala indartzen  
ari da  
>> U.A.

**U.A.:** Talde mailan nik ezin dut askorik esan, 8 Negozio gara, eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu, bai merkatu motari dagokionez bai antolamendu egiturari, dimentsio, filial eta gainerakoari dagokionez, eta, ondorioz, nire esperientzia ULMA Architecturalen



&gt;&gt; I.M.: IÑAKI MEDINA

zentratzen da gehiago. Zikloen termino horri helduta, gure kooperatiban, nik uste dut giro soziala oso lotuta dagoela igaro dugun krisiari, atzean merkatuaren eroriko izugarria izan baitugu; horrek, aldi berean, eragin eta sakonera handiko erabaki hartu beharra ekarri du arlo sozietarioan, berregituraketak, urteetan aurrerakin mailak 80an edukitzea, estornuak, etab.

Horrek guztiak eragin negatiboa dauka esku artean daukagun eta denok partekatzen dugun proiektuaren aldeko egokitzapen sozietarioan. Krisi horren ondorioz, azken urteetan, exekutiboaren eta organoen ahaleginak negozio planera zuzendu dira, eta horrela gai sozialak, beharbada, bigarren maila batean geratu dira. Errealitate horrekin bizi behar izan dugu, eta aurre egin diogu, lehentasuna Negozioa birbideratzeko alderdiari emanez. Bai ikusi dudala, ordea, kontseilu orokorrean indarra ematen ari zaiola gai sozialari, eta negozioek Talde mailan lantzen ari direna jauzi kualitatiboa egiteko aukera garrantzitsu moduan hartu behar dugu.

**A.Y.:** Guri dagokigunez, esango nuke gaur egungo giro soziala onargarria dela. Garai txar batetik geroz, ULMA Construccioneekin izan genuen banaketagatik, eta jendea horretara ohitzen da. Orain txar bertan zenbakiak gure alde ditugu, baina hau futbol partida bat bezalakoa da, galtzen ari zarenean jendea urduri jartzen da, orain nahiko ondo gaude, baina osatzen kostako zaien orbainak geratu dira. Jendea prestatu behar dugu iritsiko diren garaietarako, ez dadila urduri jarri, ongi gaudenean denok gaude ongi, eta gaizki bagaude jendea prestatu behar da eta nolako Negozio mota garen esan behar diogu, zer gerta daitekeen eta nola jardun behar



&gt;&gt; J.A.A.: JON ANDER ARAMENDI

dugun. Ez gara hain onak eta ez gara hain txarrak izango. Taldeari dagokionez, ez zara ohartzen giro soziala nola dagoen, ez da asko hitz egiten, gauzak entzuten dira kanpoan... Ez dakit oso ondo sozialki Negozioak nola dauden.

**M.P.:** Guri dagokigunez, giro sozialaren arloan, eta pasatzen ari garen guztia kontuan hartuta ere, esango nuke giro soziala ona dela, jakina, urduritasun handia dago, egoerak hori justifikatzen du, baina ikusten duzu jendea aurrera ateratzeko gogoz dagoela, inplikatura dagoela, eta proiektura guztiz emanda dagoela. Uste dut diagnostiko bat egin litekeela: gauzak gaizki doazenean jendeak dena ematen du proiektuaren alde, argi edukita aurrera aterako duela, eta une bakoitzean horrek daukala lehentasuna; gure kasuan, gai sozialak apenas lantzen diren, lehentasuna proiektua aurrera ateratzeko daukalako. Jendeak ongi bereizten ditu erreibindikazio sozialak, badaki horiek bazterrean uzten, eta iritsiko da eguna non horiei buruz hitz egin ahal izango dugun; egoera txarra daukagu, baina denok inplikatura gaude aurrera ateratzeko eta Negozioa herrian mantentzeko.

**J.A.A.:** ULMA Servicios de Manutencionez transmititzen didana baloratuko dut, hori delako egunero bizi dudana. Argudio bakarra ez bada ere, orain dela gutxi birmoldaketa oso garrantzitsua egin dugu, errentagarritasun ekonomikoa lortzeko helburuarekin, eta horrek ondoren garrantzitsuak uzten ditu giro sozialean. Orain bide luzea dugu egiteko, eta bizipen horretatik ikasteko behar besteko argitasunik badugun ikusi behar dugu. Serio lan egin behar dugu, itxaropen faltsuak sortu gabe.

«  
serio lan egin behar dugu,  
itxaropen faltsuak sortu  
gabe

&gt;&gt; J.A.A.

**I.M.:** Joan Anderrek dioen moduan, guk hainbat aldaketa garrantzitsu egin ditugu azken urtean. Orain lan egiteko garaia da, etsenpluarekin predikatzen da. Hitzak sobera daude. Eta horrela baino ez dugu kolektiboa berreskuratuko. Nire iritziz, kolektibo moduan, nekatuta gaude, eta ez dut zuzenean enpresaren egoerarekin lotzen, dirua dagoenean penak ez direlako hain pena, baina pena izaten jarraitzen dute, eta luzera begira, ez bada konpontzen, faktura pasatzen du. Pertsonak zein garrantzitsu diren esaten dugu, baina gero ez dugu hori erakusteko ezer egiten. Ez daukagu antolatuta eta, ondorioz, sinesgarritasuna galtzen dugu. Konfiantza ez da oparitzen eta ez dizute ematen, zeuk irabazi behar duzu.

**I.Q.:** Kooperatibak osatzen dituzten pertsonak ez dira gizartea osatzen



&gt;&gt; I.Q.: IÑIGO QUEREJETA

«  
kezkaturata egon gaitzke...  
edo okupaturata egon gaitzke,  
hori gure hautua da

&gt;&gt; I.Q.

dutenetatik desberdinak. Kezkaturata egon gaitzke... edo okupaturata egon gaitzke, hori gure hautua da.

Hori da UHSko lan ildoetako bat "okupazioari" dagokionez.

-Kontseilari sozialen inplikazio aktiboa arloetako giro soziala neurtzeko eta gatazkak kudeatzeko (Arloko arduradunarekin eta Pertsonen Arloarekin batera).

-Artikulazio organikoa:

Lau hilean behin, Kontseilu Sozialak deskargu bat egiten du giro sozialari buruz zuzenean Kontseilu Errektorean (arlotz arlo), denok har dezagun gure gain gure erantzukizun zatia.

-Uste dugu Estrategia Sozial bat edukitzeak ikuspegi bat emango diola kolektiboari, eguneroko zereginen baino zerbait gehiagotan parte hartuz.

## hori ez da guztia...

MAHAI INGURU OSOA IKUSI NAHI DUZU?  
Begira Onlineko erreportajeen atalean ikusi dezakezu:

<http://begira.ulma.com/eu>



issuu-n ikusi



# Talentua erakartzea, enpresentzako erronka berria

"Gurekin lan egin nahi duzu?" esatetik, "Zuekin lan egin nahi dut?" esatera jauzi egingo dugu, dagoeneko jauzi hori eman ez badugu.

Galderaren erantzuna positiboa izan dadin, enpresek planak eta ekintzak abiarazi behar ditugu, gure ospe korporatiboa handitzeko. Agerikoa dirudi gakoetako bat komunikazioaren ingurunean norberaren marka enplegatzailea sortzea dela. Nahiz eta egia den, guri dagokigunez, urtetan eraikitako markaren nortasunaren ondorioz pauso bat aurrerago goazela talentuak guri buruz duen pertzepzioan.

Halere, fase guztiak ongi menperatzeak eta pertzepzio horretan eragiten duten elementu guztiak lerratzeak markatuko du diferentzia, eta talentuentzako erreferentzia bihurtuko gara.

Ildo horretan, MONDRAGON Unibertsitateko Enpresagintzako eta Goi Eskola Politeknikoko hainbat ikaslerekin elkartu gara, lan merkatura hurbildu diren belaunaldi gazte berrien errealitatea sakonago ezagutzeko. Prestakuntza dualaren garrantzia, motibazio profesional zein pertsonal berriak edo enpresetan erakargarri egiten zaizkien ezaugarriak, horiek dira eskaini dizkiguten gakoetako batzuk.

## Talentua erakartzea ULMA Taldean

Talentua erakartzeko eta atzitzeko orduan, ULMA Taldeak hainbat egitasmotan parte hartzen du, adibidez, joan den azaroaren 11n Munichen egindako BE BASQUE TALENT CONFERENCE konferentzian.

Biltzarrean ia 25 euskal erakunde eta Alemanian nazioarteko karrera bat garatzen ari diren kualifikazio handiko 130 profesionalak parte hartu zuten.



OSANE LIZARRALDE

MONDRAGON Unibertsitateko Informatika eta Telekomunikazio Graduen enpresetako praktiken koordinatzailea

ESTÍBALIZ HERNANDEZ

MONDRAGON Unibertsitateko Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza Graduako koordinatzailea (myGADE)

**M**erkatua gero eta profil "teknologoagoak" eskatzen ari da, eta horrelako karreretan dugun ikasle kopuruarekin ezin ditugu behar horiek ase. Hor gap handi bat daukagu. Nire arloari dagokionez, batez ere automatizazioari lotutako profilak eskatzen dituzte: software, web aplikazio eta smartphoneen garatzaileak, sistema txertatuak, datuen analisia, arimen artifiziala, robotika, elektronikako ezagutzak, etab.

Gazte horiek erakartzeko arazoa ez dute bakarrik enpresek, unibertsitatean ere badaukagu. Nire iritziz, erronkarik handiena da gazte horiek unibertsitatean erakartzea, batez ere neskak, azken urteetan beraien presentzia jaitsi egin delako, ia-ia desagertzearaino.

Joera hori iraultzeko, lan sendoagoa egin behar dugu enpresek eta unibertsitateek zein kanpoko eragileek, izan pribatuak zein publikoak.

Unibertsitatean prestakuntza dualaren formula indartzearen alde egiten dugu. Konbentzita gaude oso onuragarria dela, bai ikasleen ikaskuntza prozesuan, bai enpresen ikuspegitik, ikasleak lan esparruan ezagutu ditzaketelako.

gazte horiek erakartzeko arazoa ez dute bakarrik enpresek, unibertsitatean ere badaukagu

**T**alentu gaztea erakartzea atxikitzeko eta "harrobia" sortzeko, beharrezkoa da enpresak unibertsitateetatik hurbil egotea, horiek direlako talentu iturri nagusia: prestakuntza dualeko ikasleak integratuz, unibertsitateko foroetan aktiboki parte hartuz, I+Gko proiektu bateratuetan, etab.

Gainera, garrantzitsua da markaren irudia enpleguaren ikuspegitik lantzea, proiektu ilusionagarri bat eskainiz, honelako osagaiekin: lan malgutasuna, lantalde berritzailea edo etengabeko prestakuntza.

Gazteen balioen eskala aldatzen ari da. Gai ekonomikoaren gainetatik, gazteek baloratzen dute lan egiten duten enpresak bere motibazioekin bat etorriko den bide bat garatzea eskaintzea, prestakuntza eta garapen planean inbertitzea, erabakiak hartzen parte hartzen uztea eta diziplina askoko taldeetan sartu ahal izatea. Enpresako talentua barne bezero baten moduan landu behar da, zaindu eta bere ongizateagatik arduratu behar da, konfiantzan oinarritutako giro bat sortuz, eta enpresaren proiektu globalari egiten dion ekarpena agerian jarritz.

Etorkizunean talentua lortzeko borroka egongo da, eta pertsonen espektatibei erantzuteko ondoen posizionatuta dagoen enpresak lortuko du profirik onena erakartzea.

Faktore humanoa gero eta erabakigarriagoa da enpresaren lehiakortasunean. Teknologiak eta azpiegiturak erosi egin daitezke, baina, aldiz, faktore bereizgarria pertsonak eta errealitate enpresariala eta soziala eraldatzeko duten ahalmena izango dira.

faktore bereizgarria pertsonak eta errealitate enpresariala eta soziala eraldatzeko duten gaitasuna izango da



Enpresagintza eta goi eskola politeknikoan (GEP) formazio duala ikasten ari diren ikasleek euren esperientziak eta motibazio profesionalak kontatu dizkigute:

&gt;&gt;

Egia esan, ULMAN egotea oso esperientzia aberasgarria izaten ari da. Gainera, Gradua amaitzen dudanean enpresan 4 urteko praktikak egiteko aukera izango dut. Lan merkatura ateratzeko orduan abantaila handia da. Etorkizunari dagokionez, pertsonalki, nahiago dut hemen gelditzearen apustua egin, nahiz eta kanpora irten eta beste errealitate batzuk ezagutzeak ere motibatzen nauen.

Nire ikuspuntutik, enpresa erakargarri bat bere langileei autonomia ematen diena da. Positiboen baloratzen dudana beste gauza bat da etengabe berrikuntzan diharduten enpresak izatea da, euren konfort egoeratik atera eta arriskatzeko dutenak.



**MAIALEN VILA**

myGADEko ikaslea, 3. ikasturtea.  
Enpresagintza

*gradua amaitzen dudanean, enpresan 4 urteko praktikak egiteko aukera izango dut. Lan merkatura ateratzeko orduan abantaila handia da.*

>>  
Gradua amaitzen dudanean, ikasten jarraitu eta Master bat egiteko asmoa daukat. Dena den, esan behar dut formazio dualaren bidez, konpetentzia teorikoak lortzeaz gain, modu errealean lan munduari aurre eginda soilik lortu ditzakezun konpetentzia batzuk eskuratu ditugula. Hori ere plus bat da lan merkatura ateratzeko orduan.

Gaur egungo gazteen mentalitatea aldatzen ari dela uste dut. Nire kasuan profesionalki hazteko gai interesgarriak bilatzen ditut. Ez da nire asmoa enpresa batean sartu eta bizitza osorako han geratzea lan berdina egiten. ULMAren kasuan asko baloratzen dut nazioartekotutako enpresa bat izatea, badakidalako profesionalki hazi eta kanpora ateratzeko aukera emango lidakeela.



**MAIDER ELORZA**

myGADEko ikaslea, 4. ikasturtea.  
Enpresagintza

*gazteen mentalitatea aldatzen ari da. Nire kasuan, profesionalki hazteko gai interesgarriak bilatzen ditut.*

&gt;&gt;

Gradua amaitzen dudanean, espezializazioa lortzeko aukera emango didan Master bat egiteko asmoa daukat. Dena den, nire ikasketak amaitzen ditudanean, nire lankideek bezala lan egiten hasteko asmoa daukat. Gure kasuan, badugu abantaila apur bat, 4 urteko esperientzia daukagulako. Enpresek baloratzen jakitea espero dut. Bestalde, nazioartekotutako enpresa batean sartzeak motibatzen nau, zeinak bidaiatu eta herrialdez aldatzeko aukera emango didan enpresaz aldatu gabe. Zentzu horretan, ULMA aukera hau eskaini diezadakeen enpresa handi eta nazioartekotua bezala ikusten dut. Une hauetan, soldata eta hurbiltasuna ez dira lehentasunezkoak niretzat.



**LEIRE ELGARRESTA**

myGADEko ikaslea, 4. ikasturtea.  
Enpresagintza

*nazioartekotutako enpresa batean sartzeak motibatzen nau, zeinak bidaiatu eta herrialdez aldatzeko aukera emango didan enpresaz aldatu gabe.*

&gt;&gt;

Badirudi lan merkaturaz zailduta dagoela. Nahiz eta egia den gure sektorean gauzak ez daudela hain gaizki. Enpresek gure profileko profesionalak eskatzen dituzte, informatikariak, telekoak, etab.

Bestalde, enpresa bat aukeratzeko orduan, pertsonalki asko baloratzen dut hurbiltasuna. Hau da, lan egiten dudana enpresa etxetik hurbil egotea. Horrek ez du esan nahi ez dudana atzerrira lanera atera nahi. Lan egiten dudana enpresak denboraldi batez kanpoan lan egiteko aukera ematea eta gero bueltatzea gustatuko litzaidake.



**IBAI IRIGOYEN**

Telekomunikazioak eta informatikako gradu bikoitzeko ikaslea.  
Goi Eskola Politeknikoa

*enpresek gure profileko profesionalak eskatzen dituzte, informatikariak, telekoak, etab.*

&gt;&gt;

Hemen, Euskal Herrian, teknologia eta ikerketarekin erlazionaturako guztia oso indartsua da. Bertan aukera asko ditugula uste dut, eta aprobetxatzen jakin behar dugu. Dena den, Polonian egon nintzen 4 hilabetez praktikak egiten. Esperientzia oso aberasgarria izan zen, baina kontziente naiz praktiketara joatea eta lanera joatea ez dela berdina. Denboraldi batez lanera joatea gustatuko litzaidake eta esperientzia hori beste modu batean gozatzea.

Lan egiteko enpresa bat aukeratzeko orduan, nire ikuspuntutik soldata garrantzitsua da, baina baita lanean dagoen giroa ere. Garrantzitsuena egiten dudanarekin eta inguruan ditudan pertsonekin gustura egotea da.



**MARKEL TXASKO**

Informatika graduko ikaslea, 3. ikasturtea.  
Goi Eskola Politeknikoa

*bertan aukera asko ditugula eta aprobetxatzen jakin behar dugula uste dut.*

&gt;&gt;

Badirudi informatika eta telekomunikazioen sektorean lan eskaintza handia dagoela. Dena den, gehien arduratzen nauena eskaintzen dituzten lan baldintzak dira. Krisiarekin baldintzen murrizketa handiak egin dira. Nire ikuspuntutik, eskaintza gazte horien talentuaren araberakoa izan behar da.

Enpresa bat aukeratu behar badut, berrikuntza eta teknologi arloetan egiten duen apustua baloratzen dut, eta langile bakoitzaren iritzia kontuan izatea. Kooperatiba bat izatearena beste gai interesgarri bat izan daiteke, baina erabakia hartzean ez da lehentasunezkoa.



**UNAI IZAGIRRE**

Sistema Txertatuen Masterreko ikaslea.  
Goi Eskola Politeknikoa

*enpresa bat aukeratu behar badut, berrikuntza eta teknologi arloetan egiten duen apustua baloratzen dut.*



Sail honetan zure Fundazioak egiten duen jardunaren berri ematen dizugu, ULMA osatzen dugun pertsonokin lankidetzan, eredu gizatiar eta jasangarriago baterantz gizartearen eraldaketarekin dugun konpromisoa bideratzeko.

## 2017ko jarduna izenburutan



### elkartasun bidaia

Izaskun Vildarraz, ULMA Orga Jasotzaileetako lankidea, Mexikora joan zen abuztutik azarora bitartean Mundukideren eskutik, zonaldeko hainbat kooperatibatan formazioa emateko.



### umeentzako tailerrak

4tik 10 urtera bitarteko 76 umek parte hartu zuten ekaineko tailerretan, iaz baino %65 gehiagok. 6 begiralek lagunduta egon ziren, eta euretako bi ULMAko senideak ziren. Famili kontziliazioaren aldeko neurria oso ondo baloratu dute gurasoek.



### sukaldeko tresneriaren elkartasunezko bilketa

Batez ere lapikoak eta zartaginak, baina baita baxera, mahai tresnak edo gailu elektrikoak ari dira une honetan Hondurasera bidaiatzen, eta aurreikusita dago urte amaierarako iristea. Argitaratuko ditugu irudiak jasotzen ditugunean. Eskerrik asko laguntzeagatik!



### #keinujiangarria

Momentuz Zerbitzu Zentraletan eta Eraikuntzan: beirazko botilak banatu eta ur pitxarrak jarri ditugu bilera geletan plastikoaren kontsumoa murrizteko. Urtean 5.000 ur botila baino gehiago kontsumitzen genituen!

Eta abian da kontsumo elektriko arduratsuagorako kontzientziario kanpaina, beharrezkoa denean bakarrik piztu argia, itzali dispositiboak erabiltzen amaitutakoan eta aire girotua neurritz erabili.



### azaro osasungarria

"Izan Osasuntsu" programaren barruan, azaroko ostegunak aholku osasungarri beteta egon dira. Osasun eta ongizateko adituen bisita hartu genuen, eta hizpide izan zituzten martxa nordikoa, David Spine Concept, osasuna eta giza mugimendua edo K-Stretch. Hitzaldi osasuntsu eta interesgarriak eta praktikak eginda!


## eta gainera...

- ULMAko 70 lagunek baino gehiagok **Goiena Klubeko** urteko kuotan deskontu interesgarri batez gozaten dute.
- Oñatiko ikasleek UPTC bisitatu zuten (ULMA Packaging Technological Center) **Start Innova** programaren barruan.
- Elkartasunezko** 150 **sarrera** banatzen ditugu, 3€-tan, Anoetan Real Sociedad ikusteko. Guztira: Mundukideri emandako 450 euro.
- ULMAko 22 boluntariok lan egin zuten **Kilometroak** egunean Oñatiko Txantxiku ikastolaren alde.
- 13 lagunek ordezkatu zuten ULMA **kooperatiben arteko elkartasunezko III. Lasterketan** Mundukideren alde: korrika, igerian edo martxa nordikoa praktikatu.
- Proba pilotua Garagaltza uzoan gasolinaren kontsumoa murrizteko: **mugikortasun jasangarria** saritzen dugu Ciclogreenekin. Travel Club-aren antzeko mekanika batekin. Jadanik egin ditugu ia 1.000 ekokilometro: gasolinarik kontsumitu gabeko lekualdatzeak!
- Oñatiko **herriko komertzioa sustatzeko** proba pilotua: on line erosteko aukera, eskaera lanlekuan entregatu eta banaketa kotxe elektrikoarekin.
- Bazterketa sozialeko arriskuan dauden **Bidebarriko** 5 pertsonak La Caixako langile boluntarioen eskutik formazioa jaso zuten: "Etxeko ekonomia-erantzukizun finantzarioa" eta "Zelan egin CV bat, lana bilatu edo laneko elkarrizketa prestatu".

Informazio gehiago nahi baduzu [ulmafundazioa@ulma.com](mailto:ulmafundazioa@ulma.com) helbidera idatzi dezakezu.



## Keinu bat iraganari



## ULMA Pipingeko lehenengo erorketa mailua

1964an, ULMA Piping bridak ekoizten hasi zen, Gack enpresari erositako erorketa mailu batekin. Erosketak enpresan eraldaketa sakona ekarri zuen. Aukera Alemaniara makina bat erosteko egindako bidaia batean sortu zen, ekoizleak bridak ekoizteko aukera eskaini zienean, eta lan karga garrantzitsua bermatu zien. Gaur egun mailu hura erabiltzen ez den arren, ULMA Pipingeko Zubillagako plantaren kanpoaldean jarrita ikusi daiteke.

HONELAKO IRUDIRIK BADUZU EDO MUGARRI HISTORIKORIK GOGORATZEN BADUZU, GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZKE ULMAKO HISTORIA ERREPASATZEN DUGUN SAIL HONETAN ARGITARATZEKO.

ALDEZ AURRETIK ESKERRAK EMATEN DIZKIZUEGU ZUEN LANKIDETZAGATIK.



begira@ulma.com

## ERRETIROAK: 2017ko irailak 1 – abenduak 31

Juan Mari Beitia



Juan Miguel Zabarte



Miguel A. Lasagabaster



José Esteban Sanz de Galdeano



Ion Ander Mugika



Antonio Ballesteros



Rafa Amasorrain



José Manuel Prieto



Txaro Uribeetxeberria



Mila Igartua



María Pilar Ayastuy



Itziar Zabaleta



José Javier Belloso



**Eskerrik asko eta gozatu!  
Zorionak**

2018  
egutegia  
calendario


Aurreko bi urteetan bezala, joan den irailean ULMA Taldeak bazkide eta langile guztiei zuzendutako XII. argazki lehiaketa jarri zuen martxan.

Jasotako argazkien aukeraketa bat egin eta aldizkari honekin batera doan mahaiko egutegia editatu da. Gainera, parte hartzaile guztien artean Eusko Label otzara ederra zozketatu da.

**Eskerrik asko parte hartzeagatik!**







# www.ulma.eus

**ULMA Taldeari buruzko informazioa zure eskura**

ULMA Taldeko bideo guztiak

**Youtube**

Sartu zaitetz ULMA Taldearen profileen

**Linkedin**

ULMA Taldearen azken berriak argazkien bitartez ezagutzeko

**Flickr**

Jarraitu ULMA Taldea @GrupoULMATaldea

**Twitter**

**BEGIRA OnLine**

[www.begira.ulma.com/eu](http://www.begira.ulma.com/eu)

ULMA Taldeko aldizkari korporatiboa

**<http://portalde.ulma.com>**

Gainera, gogoratu ULMAko langile guztiok dugula sarbidea PORTALDEn, ULMA Taldearen intranet korporatiboa. Hona aurkituko duzun informazioa: Araudiak, Barne Araudia, ULMAko langile izateagatik ditugun deskontuak eta abantailak, sarrerak eskatzeko aukera, lan deialdiak, medikuaren ordutegia, osasun informazioa eta Lagun Aroko medikuen zerrenda eta atzerrian dugun asistentzia, besteak beste.